

«Bizitzen erakusteak jokatzeko erakusteak baino askoz errendimendu hobea dakar»

Ordubetea hiru kafe edan arren lasai hitz egiten duten pertsonak badaudelako.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zer pasatzen zaio burutik lehen mailan debutatu berri duen gazte bati, belauna txikitu eta futbola utzi behar duela esaten diotenean?

Denetik eta ezer ez. Oso gogorra da ordura arteko ametsei uko egin behar izatea. Baina era berean, jabetzen zara futbola ez dela jokatzeko bakarrik, badituela beste arlo batzuk, eta zure bizitza futbolik gabe irudikatzen ez duzunez, horietako batean murgiltzea erabakitzen duzu. Bizimoduak aurrera jarraitzen du beti, eta bertatik botatzen zaituzten arte, ezin duzu trenetik jaitsi.

Egun, idolatriaren idolatriaz, ematen du jokari batzuen faltan ezingo garela bizi.

Denak egiten duelako zarata gehiago. Harrituta geratzen naiz niniñokeri batek aldizkari eta egunkari guztiak astebetea nola betetzen dituen ikusita. Nire futbol filosofia “nola bizi, hala jokatu” lemarekin laburbildu izan dut, baina futbolarik heziketaren ispilutik alde egin ezin duen heinean, hori baino askoz gehiago da. Ni entrenatzaile hasi nintzenean, atzetik bi telebista izaten genituen gehienez, eta egungo lehen mailako *mister*-ek dozenatik gora dauzkate. Horrek huskeria oro hamabi aldiz errepikatzen dela esan nahi du, oihartzuna hamabi aldiz biderkatzen dela, eta heziketaren ispiluan zure burua ikusten segi ahal izateko oso argi eta kontsekuente agertu behar zarela beti.

Futbolak erakuslehoan jartzen dituen baloreak heziketaren ispilu dira?

Itsutzeko besteko dirdira duten balore horiek ez, baina futbola talde kirola den heinean, heziketa bide oso emankorra iruditzen zait edozein gaztetxorentzat. Futboleko hasi eta edozein ume jabetuko da ezin duela bakarrik bizi, kideak behar dituela laguntze-

ko, arerioak kontra egiteko, zelaian postua irabazteko taldekideekin ere lehiatu beharko dela, arau batzuk errespetatu behar dituela, arau-hauste bakoitzeko epaileak zigortuko duela, entrenatzaile eta zuzendariei kasu egin behar diela... Futbola gizarte eredu honen miniatura bat da, eta molde horretan hazi eta hezi direnak ez dute oztoporik izaten eguneroko bizimoduan txertatzeko. Arazoa zein den? Alineaziotik alienaziora tarte txikia dagoela, eta buru-egiturak gehiegi estutuz gero, futbol mundutik at galduta ibiltzeko arriskua dagoela. Baina, hala ere, nik aholkatzen dut, futbolarik asko erakusten du.


Gaztetxoek, futbolaria ez, Messi edo Cristiano Ronaldo izan nahi dute, ordea.

Izar izan nahi hori ez dago kudeatzerik. Futbolari baten nortasunak hiru geruza dauzka. Nukleoan “ni”-a dago, bigarren geruzan taldekideak, eta hirugarrenean inguru osoa. Futbolariaren nortasuna ni-tik ingurura badoa ondo goaz, baina ingurutik ni-ra gartzen bada jai daukagu. Egungo gazte askok inguruko geruza horretan baino ez dute futbola bizi nahi, eta agente edo ordezkariak sartu direnetik, oso erraza da hori. Borroka nahi dutenean, agenteari adierazpenak egiteko esan eta kito. Horrek asko zailtzen du entrenatzaileak jokalarik bakoitzaren ni-arekin egin dezakeen lana. Baina hor dago arra-

Nortasun agiria

1953ko irailaren 26an jaio zen Azpeitian. Athletic-en debutatzera iritsi zen arren, lesio baten ondorioz jokatzeari utzi eta entrenatzaile bezala egin da ezagun. Espanyol, Valladolid, Sevilla eta Tenerife entrenatu ditu Espainiako lehen mailan, Bolivia eta Txileko hautatzaile izan da, eta Japoniako Yokohama Marinos eta Mexikoko Chivas de Guadalajara ere zuzendu ditu. Horretaz gain, Real Madrileko Amerikako enbaxadorea eta atzerriko eskolen zuzendari ere aritua da.

Xabier
Azkargorta
• P E R T S O N A I A •





kastaren gakoa. Jokalari ororen ni intimoa, ni soziala eta ni publikoa garatuz gero, taldeki-deen geruza berez izango da atsegina, eta ingurua kontu pixka batekin tratatuz aise egingo duzu aurrera.

Baina puntako talde batek fitxatzen duen 12 urteko mutil koxkorak zer ni klase eduki dezake?

Eraikuntza prozesuan daukana hankaz gora erortzen zaio. Ez ahaztu, batez ere Hego Amerikan eta Afrikan, 12 urteko mutila dela etxera ogia ekartzen duena. Aitari semeari esker eskaintzen diote lana, eta txanponak semeari esker datoz. Kontuz-kontuz ibili ezean, bere nortasuna errotik puskatu dezakeen protagonismoa hartzen du mutil koxkorak. Zalantza asko ditut praktika horrekin, baina zorionez, gutxi dira oraindik. Askoz gehiago kezkatzen nau, 10 urterekin Realak fitxatzen duen azpeitiarraren kasuak. Taxilaria jarriko diote entrenatzera joateko, txuri-urdienez jokatzen hasiko da, baina auskalo zergatik, handik hiru urtera Lagun Onak-era bidaliko dute bueltan. Mutil horrentzako atzerapauso horrek ez dauka bueltarik, bereak eta bi entzun beharko ditu, eta gutxi dira aurrera jarraituko dutenak. Horregatik diot, talde profesionalak heziketa-arloan gehiago landu behar luketela

bakoitzaren ni intimoa, eta entrenatzaileek 4-4-2 eta 4-2-3-1, horiez baino gehiago jakin beharko lukete.

Oso gutxi hitz egiten da frakasoaz.

Jendearentzat ezezaguna da, eta ezezaguna denez, beldurra dio. Horretaz gain, frakasoari lotutako beste gai bat dago, min emateko erabiltzen dela. Ez zaio beldurrik izan behar frakasoari, baina frakaso totala eta frakaso partziala bereizi behar dira. Frakaso partzialen kate bat baita bizitza, erori, irakaspenak atera, eta berriro zutitzea. Inoiz frakasatzen ez duen pertsona bat nekez izango da heldua, eta porrot bat aski izango du, betiko hondoratzeko. Hori da lehen mailako atean askori pasatzen zaiena. Horregatik frakasoaz hitz egin dezakegu, eta hitz egin behar dugu.

Gauza bera da frakaso Bolivian, Japonian edo Euskal Herrian?

Bai, frakasoaren gune geografiko bakarra zure barrena delako. Pentsa, nik ustez frakasatu dudan leku zenbaitetan, arrakasta lortu dudan beste batzuetan baino lan hobe egin dut. Txilen, esaterako. Bi urteren ostean, azken bi urteak utzita alde egin behar izan nuen handik, baina banekien bi urte horietan jarritako oinarriekin, Txileko futbolak pixka batean gora egingo zuela, eta bai, txiletarrek

eta denborak arrazoia eman zidaten. Horregatik ez zait gus-tatzen frakaso hitzaren erabile-ra. Har dezagun politika. Nego-ziazio luze baten ondoren haustura datorrenean denek hitz egiten dute frakasoaz, baina ez, frakaso horri esker helduko da hurrengo negozia-keta arrakastara. Baina jendeak ez du hori ikusi nahi, unean uneko arrakastari so bizi da, eta oihartzunaren atzean zer dago-en ikusteko ahalegin gutxi dago. Futbolari batek zelaira sartzen den momentutik parti-da bukatu arte zeregin bat dau-kala dio Menottik, eta nik diot, jaiotzen garenetik hil arte dau-kagula zeregin bat. Bestela, gaizki ari gara.

Bolivian egin zenuen frakasotik arrakastarakoa. Heriotza meha-txuekin hasi eta ministro izateko eskaerarekin amaitu zenuen.

Has nadin amaieratik. Gailu-rrean zaudenean alde egin behar duzula uste dut nik. Hala egin nuen Bolivian, eta esango nuke oraindik ere horregatik estimatzen nautela hainbeste. Nahiko argi neukan aldaketara-ko ordua zela. Mesias bat bihurtu nintzen. Eguneroko albistegian, presidentek nire zitak erabiltzen zituen, irratia batera joan eta amek euren semea hezteko aholku eske hots egiten zuten... Irudika ezina eta batzuetan jasangaitza zen hura. Ordura arteko bidea ez zen samurragoa izan, ordea. Boliviatik deitu zidatenean, lehen mailako entrenatzailea nintzen Espainian, ondo nen-bilen, baina beti pentsatu izan dut entrenatzaile batek bere nortasuna borobiltzeko Hego Amerikako esperientzia ezin-bestekoa duela. Gogoan dut amari itsasoa zeharkatzera nin-doala esan nionean "misiolari, ala?" erantzun zidala. Baina erronka kitzikagarria zitzaidan eta aurrera egin nuen. Baina, 1992an heldu nintzen ni, espai-nolen konkistaren V. mendeu-rrenean, eta horixe nintzen eurentzat, konkistara zetorren beste espainol bat. Horretaz



Xabier eta Karajito


10€



Xabier eta Karajito, Baobab handia

Xabierrek amets egin du, eta amets horretan Baobab handi bat aurkitu du. Lagun berriak ezagutu eta abentura bat izango du haiekin. Karajito ere saiatuko da Xabierri bihurrikeriak egiten.

10€



Xabier eta Karajito, Itsasoko abentura

Xabier kostaldeko herrixka batera joan da, osabak bere txalupan arrantzatza gonbidatu duelako. Karajito azalduko zaie bat-batean, beti bezala, bazterrak nahastera. Baina hori bakarrik ez; konturatuko dira pertsona askoren jokabidea ez dela oso egokia ekologiar dagokionez.

10€



Xabier eta Karajito, Izarren bila

Asko ikas dezakegu adineko pertsonengandik. Horregatik murgilduko da Xabier astronomiaren mudi liluragarrian, eta bere irudimenari ateak zabalduko dizkio. Hor izango du bananduezineko bere lagun Karajito ere.

Eskaintza berezia **argia**ko harpidedunentzat



30€

kamixeta opari!



ESKAERAK

☎ 943 37 15 45

www.argia.com/denda

gain, heldu orduko ohartu nintzen, Bolivian futbolaria izatea azkenaren hurrena zela, mozkor, tranpati, zorpetu eta faltsu fama zeukaten denek, eta fama horrekin normala denez, futbolariak kaka baino gutxiago maite zuten euren burua. Fama hori aldatu eta bakoitzaren autoestimua igotzea izan zen gure lanaren funtsa. Horrek eraman ninduen heriotza mehatxutik Andesetako Kondor-aren ohorezko ikurra jasotzera.

Bizi den bezala jokatzeko omen da futboleak, baina suposatzen dut desberdin bizi dela Bolivian eta Japonian. Hori nola integratzen du kanpotik datorren batek?

Bertan biziz eta begi-belarriak etengabe irekita edukiz. Boliviara joan eta ikusten duzu ia-ia jateko ere ez daukatela, oso bakartiak direla, autoestimua txikikoak, talde-lanik ez dagoela, puntualtasuna ez dela existitzen. Japonian aldiz, autoestimua ikaragarria daukate, futbolari baten aukera ekonomikoekin zeharo harrotuta bizi dira, izugarritzko errespetua diote heziketa eta hierarkiari, baina beti daude zer egin behar duten nork esango zain. Zuk hori integratzen duzu, eta ohartzen zara japoniar bati 10 km egiteko esan eta “zergatik ez 11?” erantzuten dizula, baloia modu jakin batean 200 aldiz jotzeko agindu eta “zergatik ez 300?” ematen dizula arropatu, baina taktika lantzen hasi eta uneoro daukazula zuri begira zer egin jakin gabe. Bolivian berriz, fisikoki ikaragarri kostatzen zaie, baina taktikoki eta teknikoki berezko gaitasuna daukate, japoniarrek ez bezala futbolarekin jaio direlako. Horretaz gain, egunerokoan oso garrantzitsua den umorea dago. Entrenamenduan, ate aurrean bakar-bakarrik huts egiten duen aurrelariari “holaxe gustatzen zait, arriskua dagoenean baloia kanpora!” esan eta Bolivian tripaz gora lehertzen dira denak, baina Japonian txistea esplikatuta arte ez dute barrerik egiten, eta behin esplikatuta, aurrelaria gaitzitu egiten da. Horregatik, hori guztia barneratu arte, hanka puntetan ibili behar duzu beti, errespetuz, galdezka, zerrak, zer-gerta. Denborak ezer erakutsi badit, bizitzen erakusteak jokatzeko erakusteak baino askoz errendimendu hobea dakarrela da. 24 ordu dauzkagu bizitzeko, eta entrenamenduak bi baizik ez ditugu irauten. Bi ordu horietan asko erakutsita ere, jokalariek 22 ordu dauka dena ahanzteko, eta 24 orduko eskema batekin bazabiltza, entrenamenduko bi orduak propinpan eman-

OFF THE RECORD

PROFESOR

Halaxe hots egiten diote han eta hemen, eta berarekin bi hitz trukatzeko dituenak, aise ulertzen du zergatik. Bere garaiko entrenatzaileak, onak, txarrak, bigunak, gogorrak, makalak, lagunkoiak, zigortzaileak... omen ziren, baina ez ei zegoen entrenatzaile mediatikorik. Orain, ordea, entrenatzaileek ere entrenatzailea beharko duten aroan sarztera goazela diote.

go dizkizu. Horretan egiten dugu huts entrenatzaileok.

Zure diskurtsoak ez dauka zerikusirik Florentino Pérez-enarekin eta elkarrekin lan egindakoak zarete.

Florentinoren ereduak beste bat da, baina oso gizon azkarra da, eta argi eta garbi banatzen ditu arloak. Lehen talderako lehen mailako izarrak baizik ez ditu nahi, baina badaki horretarako oinarri sozial bat behar duela. Formakuntza mailan ere bi eredu daude, lehen mailako futbolariak prestatuko dituenak bat, eta mutil koxkorren bitartez Real Madrilen izena mundu guztian zabalduko duena bestea. Zuk kalkulu azkar bat egiten baduzu, Mexikoko gaztetxo batek dozena bat lagun mugitzen ditu inguruan, eta horrek esan nahi du, mutiko hori Real Madrilen eskolara joaten bada 12 real-madrilzale irabazi dituzula, eta hauek Espainiara etorriko direnean, Bernabeura joan eta Cristiano Ronaldoren kamiseta erosiko dutela. Harrigarria da baina futbola denetan dago, hasi parlamentu aberatsenetik azken puntako zoko pobreraino. Lurrikarak daude nean soilik aipatzen diren miseriak betetako herrixketan ere beti agertzen da Real Madrileko kamisetarekin dagoen umetxo bat, eta orduan pentsatzen duzu, “nola arraio iritsi da kamiseta hori horra?”.

Zer parte du prentsak negozio horretan?

Entrenatzaile batentzat prentsa problema eta soluzioa da. Arrakastara bidean dena hain zehazki jartzen izugarri lagundu zaitzake, baina bizkarra ematen badizu ez daukazu zereginik. Azken hamar urteotan asko aldatu da prentsa eta futbolararen arteko harremana. Orainsu arte, medio batek sinpatia edo antipatia izango zion talde bati, baina orain prentsa negozioaren parte da. Batetik, zure prentsarekin batera nire taldeko kitarak saltzen utziko dizut kioskoan, baina hori ondo portatzen bazara bakarrik. Bestetik, prentsa kontrolatzen duten enpresarioak irudi eta telebista eskubideak kosta ahala kosta erosi nahian dabilta. Horrek zer dakarren? Behin milioiak inbertitu ostean ezin dutela talde hori gaizki joaten utzi, partidariak irabazi ezean jendea gutxiago kateatuko delako, eta egunetik egunera negozioa pikutara joango delako. Garai batean, egin zenitzakeen bi elkarriketa jarraian lehian zeuden bi irati desberdinetan, ez zegoen inolako arazorik. Orain aukeratu beharra daukazu, eta horren arabera tratatuko zaituzte gero. Gaur egun, dena da nirekin ala nire aurka, dena zuria ala beltza, eta ez, gris asko dago bizitzan. ■